

**Kontrol Kodea**  
 Código de Control

**GEF-GET-IBI-03-DN.488 //**

ADIBIDEA	EJEMPLO
<p>Fernando jaunak eta María andreak <b>etxebizitza bat</b> daukate Getxon, %50ean, eta etxebizitza horren balioa merkatuan 350.000 eurokoa da. X urteko urtarilaren 1ean katastro balioa 200.000 eurokoa da. Etxebizitza Rosa andreak alokatu du, 1.100 euroko hileko errentarekin.</p>	<p>D. Fernando y D<sup>a</sup> María poseen al 50% una <b>vivienda</b> en Getxo cuyo valor de mercado es de 350.000 €. El valor catastral a uno de enero del año X asciende a 200.000 € La vivienda se encuentra alquilada a D. Rosa por un renta mensual de 1.100 €.</p>
ZERGA-OINARRIA Zerga zein balioen arabera ordaintzen da?	BASE IMPONIBLE ¿Cuál es el valor sobre el que se paga el impuesto?
<p>Zerga kalkulatzeko ez da merkatuko balioa kontuan hartzen, soilik urtarilaren 1ean duen katastro-balioa.  <u>Adibidez:</u> Zerga-oinarrria = Katastro-balioa = 200.000 €</p>	<p>Para el cálculo del impuesto no se tienen en cuenta los valores de mercado, únicamente el valor catastral a 1 de enero.  <u>Ejemplo:</u> Base Imponible = VC = 200.000 €</p>
KARGA MOTA Zein ehuneko ordaindu behar diot Udalarari?	TIPO DE GRAVAMEN ¿Qué porcentaje tengo que abonar al Ayuntamiento?
<p>Udalak karga mota urtero ezartzen du Ordenantza Fiskaletan, zerga arautzeko Foru Arauan aurreikusitako mugekin bat etorriz.</p> <p>Egoitza katastro-erabilerarako Getxoko Udalak honako tasa hau du ezarrita X urtean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tasa orokorra: % 0,2469</li> <li>- Tasa areagotua: % 0,2962% (Baldin eta Katastro Balioa bada &gt; 271.000 €)</li> </ul> <p><u>Adibidez:</u> Adibidean, etxebizitzaren katastro-balioak ez du 271.000 euroko kopurua gainditzen; horrenbestez, ez da karga-tasa areagotua aplikatuko, baizik eta tasa orokorra, % 0,2469.</p>	<p>El Tipo de Gravamen es fijado anualmente por cada Ayuntamiento en sus Ordenanzas Fiscales, conforme a los límites previstos en la Norma Foral reguladora del impuesto.</p> <p>Para el uso catastral residencial el Ayuntamiento de Getxo tiene establecido el siguiente tipo en el año X:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tipo general: 0,2469%</li> <li>- Tipo incrementado: 0,2962% (Si el Valor Catastral &gt; 271.000 €)</li> </ul> <p><u>Ejemplo:</u> En el ejemplo, el valor catastral de la vivienda no supera los 271.000 € por lo que se aplica el tipo de gravamen incrementado sino el tipo general del 0,2469%.</p>
ZERGA-KUOTA Zenbat ordaindu behar dut zerga honen ondorioz?	CUOTA TRIBUTARIA ¿Cuánto tengo que pagar por el impuesto?
<p>Zerga-kuota kalkulatzeko Zerga-oinarriri karga tasa aplikatu behar zaio.  <u>Adibidez:</u> Zerga kuota = 200.000 * % 0,2469 = 493,80 €</p>	<p>La cuota tributaria se calcula aplicando el tipo de gravamen a la BI.  <u>Ejemplo:</u> Cuota Tributaria = 200.000 * 0,2469% = 493,80 €</p>
SUBJEKTU PASIBOA Nori dagokio zerga ordaintzea?	SUJETO PASIVO ¿A quién le corresponde el pago del impuesto?
<p>Ondasun higiezinaren gainean eskubide hauetakoren baten titulartasunagatik OHZ eskatzen da. Zerga-eskaera aipatutako ordenan egiten da. Modalitate baten arabera eskatuz gero, ez da ondorengoaren arabera eskatuko.</p> <p>a) Administrazio-emakida.          b) Azalera-eskubide erreala.          c) Gozamen-eskubide erreala.          d) Jabetza-eskubidea.</p> <p><u>Adibidez:</u> Aurreko eskubideen titularrak zergapetzeko aukera baino ez du ematen araudiak, eta tartean ez daude alokairu eskubidearen titularrak. Horrenbestez, adibidean, OHZ Fernando jaunari eta María andreari eskatuko zaie, jabetza eskubidearen titularrak baitira. Fernando jaunak eta María andreak gastu hori Rosa andreari jasanarazten dioten adostu ahalko dute alokairu kontratuan.</p>	<p>El IBI se exige por la titularidad de alguno de los siguientes derechos sobre los bienes inmuebles. La exigencia del impuesto se realiza en el orden citado. La exigencia por una de las modalidades determina la no exigencia por las subsiguientes.</p> <p>a) Concesión administrativa.          b) Derecho real de superficie.          c) Derecho real de usufructo.          d) Derecho de propiedad.</p> <p><u>Ejemplo:</u> La normativa únicamente permite gravar con el impuesto a los titulares de los derechos anteriores, entre los que no figuran los titulares del derecho de arrendamiento. Por ello, en el ejemplo, el IBI será exigido a D. Fernando y D<sup>a</sup> María dado que son los titulares del derecho de propiedad. D. Fernando y D<sup>a</sup> María podrán pactar en su contrato de arrendamiento si le repercuten o no dicho gasto a D<sup>a</sup> Rosa.</p>
KUOTAREN HAINBANAKETA Zerga titularren arabera hainbanatu daiteke, % arabera?	PRORRATEO DE LA CUOTA ¿Puede prorratearse entre los titulares según su %?
<p>Fernando jauna eta María andrea ezkontideak edo izatezko bikoteideak badira irabazpidezko erregimenean edo ondasunen foru komunikazioan, orduan ezingo dute zerga kuota hainbanatzeko eskatu. Getxoko Udalak likidazio bakarra egingo du, 493,80 euroko kopuru guztiaren araberakoa.</p> <p>Bestalde, neba-arrebak izanez gero, egin daiteke, zergadunek alde zuzenetik eskaera aurkeztuz gero; hala, Getxoko Udalak lehenago lortutako zerga kuota, 488,40 €, bi titularren artean banatuko du, eta bakoitzari kasuan kasuko titulartasunaren %ri dagokion kopurua kobratuko dio. Kasu honetan, %50ekoa denez, bakoitzak 246,90 € ordaindu beharko luke.</p>	<p>Si D. Fernando y D<sup>a</sup> María son cónyuges o parejas de hecho en régimen de gananciales o comunicación foral de bienes no podrán solicitar el prorrateo de la cuota tributaria. El Ayuntamiento de Getxo practicará una única liquidación por el total, 493,80 €.</p> <p>Si, por el contrario fuesen hermanos, sí podrán hacerlo previa solicitud de los contribuyentes, de modo que el Ayuntamiento de Getxo dividirá la cuota tributaria obtenida anteriormente, 488,40 €, entre ambos titulares girándole a cada uno el importe correspondiente a su % de titularidad. En este caso, dado que el % asciende al 50%, cada uno de ellos abonaría 246,90 €.</p>
EPEAK Zerga noiz ordaindu behar dut?	PLAZOS ¿Cuándo debo pagar el pago del impuesto?
<p>OHZ urteroko aldizkako zerga bat da, eta zergaldiak urte naturalarekin bat datoz.          Zerga ordaintzeko data zehatzak Getxoko Udalak urtero onartuko duen Zerga Egutegi Fiskalean finkatuko dira.</p>	<p>El IBI es un impuesto periódico de carácter anual y el período impositivo coincide con el año natural.          Las fechas concretas en las que debe procederse al pago del impuesto serán fijadas en el Calendario Fiscal del Contribuyente que en cada año apruebe el Ayuntamiento de Getxo.</p>

**Kontrol Kodea**  
Código de Control

**GEF-GET-IBI-03-DN.488 //**

ADIBIDEA	EJEMPLO
XYZ, SA enpresak kontratu baten esleipena lortu du, <u>udal kiroldegiaren zerbitzua kudeatzeko administrazio emakidarena</u> . Kirol esparruko higiezin katastro balio osoa X urteko urtarrilaren lean 3.000.000 eurokoa da.	La sociedad mercantil XYZ, SA ha resultado adjudicataria de un contrato de <u>concesión administrativa para la gestión del servicio del polideportivo municipal</u> . El valor catastral total de los inmuebles del complejo deportivo a 1 d enero del año X asciende a 3.000.000 €.
<b>ZERGA-OINARRIA</b> Zerga zein balioen arabera ordaintzen da?	<b>BASE IMPONIBLE</b> ¿Cuál es el valor sobre el que se paga el impuesto?
Zerga kalkulatzeko ez da merkatuko balioa kontuan hartzen, soilik urtarrilaren lean duen katastro-balioa. <u>Adibidez:</u> Zerga-oinarria = Katastro-balioa = 3.000.000 €	Para el cálculo del impuesto no se tienen en cuenta los valores de mercado, únicamente el valor catastral a 1 de enero. <u>Ejemplo:</u> Base Imponible = VC = 3.000.000 €
<b>KARGA MOTA</b> Zein ehuneko ordaindu behar diot Udalarí?	<b>TIPO DE GRAVAMEN</b> ¿Qué porcentaje tengo que abonar al Ayuntamiento?
Udalak karga mota urtero ezartzen du Ordenantza Fiskaletan, zerga arautzeko Foru Arauan aurreikusitako mugekin bat etorriz.  Kirol katastro-erabilerarako Getxoko Udalak honako tasa hau du ezarrita X urtean: - Tasa orokorra: % 0,3218 - Tasa areagotua: % 1,0000 (Baldin eta Katastro- Balioa bada > 750.000 €)	El Tipo de Gravamen es fijado anualmente por cada Ayuntamiento en sus Ordenanzas Fiscales, conforme a los límites previstos en la Norma Foral reguladora del impuesto.  Para el uso catastral deportivo el Ayuntamiento de Getxo tiene establecido el siguiente tipo en el año X: - Tipo General: 0,3218% - Tipo Incrementado: 1,0000% (Si el Valor Catastral > 750.000 €)
<u>Adibidez:</u> Adibidean, higiezin katastro-balioa 3.000.000 eurokoa da; horrenbestez, tasa areagotua aplikatzeko muga gainditu egiten da. Horrenbestez, ez da aplikatuko karga tasa orokorra, baizik eta %1eko tasa areagotua.	<u>Ejemplo:</u> En el ejemplo, el valor catastral de los inmuebles asciende 3.000.000 €, superando por tanto el límite para la aplicación del tipo incrementado. Por ello, no se aplicará el tipo de gravamen general sino el tipo incrementado del 1%.
<b>ZERGA-KUOTA</b> Zenbat ordaindu behar dut zerga honen ondorioz?	<b>CUOTA TRIBUTARIA</b> ¿Cuánto tengo que pagar por el impuesto?
Zerga-kuota kalkulatzeko karga tasa aplikatu behar zaio zerga oinarriari. <u>Adibidez:</u> Zerga-kuota = 3.000.000 * % 1,0000 = 30.000 €	La cuota tributaria se calcula aplicando el tipo de gravamen a la base imponible. <u>Ejemplo:</u> Cuota Tributaria = 3.000.000 * 1,0000% = 30.000 €
<b>SUBJEKTU PASIBOA</b> Nori dagokio zerga ordaintzea?	<b>SUJETO PASIVO</b> ¿A quién le corresponde el pago del impuesto?
Ondasun higiezin gainean eskubide hauetakoren baten titulartasunagatik OHZ eskatzen da: a) Administrazio-emakida. b) Azalera-eskubide erreala. c) Gozamen-eskubide erreala. d) Jabetza-eskubidea.  Zerga-eskaera aipatutako ordenan egiten da. Modalitate baten arabera eskatuz gero, ez da ondorengoan arabera eskatuko. <u>Adibidez:</u> Adibidean, higiezin gaineko jabetza-eskubidearen titularra Getxoko Udala da. Hala ere, administrazio-emakida bat dago higiezin horiei dagokienez, eta horien titulartasuna XYZ, SA enpresak dauka. Kontuan hartuz zerga lehenago aipatutako hurrenkeran eskatzen dela, OHZ zerga XYZ, SA enpresari eskatuko zaio.	El IBI se exige por la titularidad de alguno de los siguientes derechos sobre los bienes inmuebles: a) Concesión administrativa. b) Derecho real de superficie. c) Derecho real de usufructo. d) Derecho de propiedad.  La exigencia del impuesto se realiza en el orden citado. La exigencia por una de las modalidades determina la no exigencia por las subsiguientes. <u>Ejemplo:</u> En el ejemplo, el titular del derecho de propiedad sobre los inmuebles es el Ayuntamiento de Getxo. Sin embargo, existe sobre ellos una concesión administrativa cuya titularidad ostenta la sociedad mercantil XYZ, SA. Teniendo en cuenta que la exigencia del impuesto se realiza en el orden determinado anteriormente, el IBI será exigido a la sociedad mercantil XYZ, SA.
<b>KUOTAREN HAINBANAKETA</b> Zerga titularren arabera hainbanatu daiteke, ehunekoaren arabera?	<b>PRORRATEO DE LA CUOTA</b> ¿Puede prorratearse entre los diferentes titulares según su %?
Ez, kasu honetan, zerga soilik eskatu behar zaio deskribatutako hurrenkeraren arabera lehenik eta behin egin den eskubidearen titularri, hau da, administrazio-emakidaren eskubidearen titularri, hau da, enpresari.	No, en este caso, el impuesto debe exigirse únicamente al titular del derecho que se realiza en primer lugar conforme al orden descrito, es decir, al titular del derecho de concesión administrativa, esto es, la sociedad mercantil XYZ, SA.
<b>EPEAK</b> Zerga noiz ordaindu behar dut?	<b>PLAZOS</b> ¿Cuándo debo pagar el pago del impuesto?
OHZ urteroko aldizkako zerga bat da, eta zergaldiak urte naturalarekin bat datoz. Zerga ordaintzeko data zehatzak Getxoko Udalak urtero onartuko duen Zerga Egutegi Fiskalean finkatuko dira.	El IBI es un impuesto periódico de carácter anual y el período impositivo coincide con el año natural. Las fechas concretas en las que debe procederse al pago del impuesto serán fijadas en el Calendario Fiscal del Contribuyente que en cada año apruebe el Ayuntamiento de Getxo.